

ERRAMUA ETA GANABERAK.

ON ANTONIO ARZAC JAUNARI.

«Arrotzen dana, beeratua izango da: umiltzen dana, goratua.»

Ibar orritsu¹ pollit batean
 Lore-tartean gorderik,
 Iturri pizkor bat irtetzen zan
 Aitz-irrinarte batetik;
 Iturri onen ur garbiyari
 Begirunez muñ egiñik,
 Gañaberacho ikaratiyak
 Alchatzen ziran bigunik;
 Beren gañean, erramu batek
 Adar gogorrek zabalik,
 Esaten zien gañaberei,
 Arrotasu nez beterik:

—¿Zergatik beti makur zerate
 ¿Sartaizechoak² mugirik?
 Sartaizeari zemuitatzeko³
 Es al-dezute indarririk?
 Ikus zazute, nola jasutzen
 Detan burua lerdunik;
 Ez diot ez nik, sekulan aise
 Igeskorrari beldurrik.—

Gañaberacho liraiñ pollitak,
 Erramuari entzunik,
 Zeruetara begiratuaz
 Esan zioten umillik:
 —Guriya zera; guziz ederra;
 Ez dezu iñon lotsarik;
 Uda ta negu, arkitzen zera
 Ostu mardulez jantzirik;
 Daukatzu chori ikusgarriyak
 Adarretara igorik,
 Zoragarrizko soñu ederrak
 Alkarren leyan kantarik;

Azpiyan dagon iturricho au
 Kant'oriye kiñ pozturik,
 Mur-mur egiñaz, dijoa, zuri
 «Ederra zera,» esanik.
 Ezagututzen degu, ordea,
 Gaudela zure azpitik;
 Ez degula guk zuk bezelako
 Indar portitz ta sendorik;
 Orregotikan, umiltzen gera,
 Kopeta oso jachirik,
 Ez gaitzan laga aize bultzadak
 Itur-ertzean etzinik.

Gau illunaren asieran zan
 Zerua jarri goibelik;
 Chimista zorrotz eta gargiñak⁴
 Agerturikan sarririk;
 Aize aldun⁵ ta chit borchariyak,⁶
 Indar-biziyan irtenik,
 Zatitu zuen erramuaren
 Enbor⁷ lodiya ondotik.
 Gañaberacho argal umillak
 Gelditu ziran zut-zutik,
 Aize-bultzada ulertutzean⁸
 Burua pizkor makurrik.

Etorririkan, egun-sentiko
 Argiya sortaikz-aldetik,
 Azalkerat⁹ zan erramua,
 Zelai gañean igarrib;
 Eta aurrean, gañaberacho
 Intzez bustiyak, esanik:
 «Umill zaitetzte, arrotzen dana
 Geldituko da beeturik.»

ECHEGARAY-KO KARMELO-K.

Santander-en Beltzilla-ren 10^{an} 1883^{an}.

(1) *Orritsua*= *Fronoso*.—(2) *Sartaizechoa*= El cefirillo.—(3) *Zemuitalu*
 =Resistir.—(4) *Gargiña*= Flamigero.—(5) *Alduna*= Potente.—(6) *Chit Bor-*
chariya= Violentísimo.—(7) *Enborra*= El tronco.—(8) *Ulestu*= Sentir.—(9)
Azalkerat= Descubrir.